

03

Maiatza / Ekaina

Mayo / Junio

May / June

2018

Kearen artxibo- gileak

**ARCHIVERAS
DEL HUMO**

02 - 03 / EDITORIALA / EDITORIAL

04 - 05 / ERAKUSKETAK / EXPOSICIONES / EXHIBITIONS

06 - 07 / ZINEMA / CINE / CINEMA

08 - 09 / HEZKUNTZA / MEDIACIÓN / EDUCATION

10 - 11 / UBIK

12 - 13 / PROGRAMA PUBLIKOAK / PROGRAMAS PÚBLICOS / PUBLIC PROGRAMMES

14 - 15 / SORTZAILEEN GUNEA / ESPACIO DE CREADORES / ARTIST'S SPACE

16 - 17 / HIRIKILABS

18 - 23 / PLANAK

24 / JONE SAN MARTIN

25 - 37 / AGENDA / DIARY

38 - 39 / INFO





EDITORIALA

EDITORIAL

Ikasturte amaiera

Fin de curso

End of academic year





Maiatzean eta ekainean, Tabakalera ere amaiera emango diogu ikasturteari, ikastetxeetan landu ditugun proiektuak aurkeztuz, ohiko programa-zikloak itxiz eta erakusketak aldatuz.

Ikasturte honetan, 120 hezkuntza zentro, unibertsitate eta elkarte baino gehiago etorri dira Tabakalera, eta guztira 6.441 haurrek eta gazteek parte hartu dute jardueretan. Irakasleekin batera egiten dugun lana oso garrantzitsua da hurrei kulturaren balioa transmititzeko. Egun hauetan, ondorioetako batzuk aurkeztuko ditugu, eta kulturak pedagogian dituen eraginei eta pedagogiak kulturaren ditueni buruz hausnartzen jarraituko dugu.

Maiatzaren 11n eta 12an, *Ikasgelatik Laborategira* topaketaren bigarren edizioa egingo dugu, hezkuntzaren arloan laborategi irekiak nola diseinatu pentsatzeko. Maiatzaren 25ean, Hernaniko Txirrita Ikastolan egindako proiektuaren emaitza aurkeztuko dugu; proiektu hori, hain zuzen, *Eskola Aldiriak* deialdiaren bidez abiatu dugu, ikastetxeak berak proposaturiko eronkak artistekin eta sortzaileekin (Mugatxoan eta Maushaus) jorratzeko helburuz. Ekainaren 19an, bestalde, Lasarte-Oriako Oriarte Institutuko DBHko 1. mailako ikasleek ekoiztu duten film laburra aurkeztuko dugu zinema-aretoan; Mikel Gurrea zuzendariarekin grabatu dute filma, A Bao A Qu elkarteak sustatu eta Elias Querejeta Zine Eskolarekin batera egin den *Zinema (h)abian - Cinema en curs* proiektuaren barruan.

Ekainean, ikasturte osoan izan ditugun programa zikliko guztiak bukatuko ditugu, baina irailan eta urrian bueltan izango ditugu berriro, hobekuntzekin, gainera, bai Ubiken bai Hirikilabsen, eta udarako programa bereziak prestatuko ditugu han.

Boterearen formak eta geografiak izenburupean, *Hiria eta bestelako politikak* proiektuaren seigarren edizioa egingo da maiatzeko lehen asteburuan, txango eta guzti, eta hurrengo asteburuan sortzaileen guneko atek zabalduko ditugu hango egoiliarrek eta haien proiektuak giro lasai batean aurkezteko.

Maiatzaren 17tik 19ra, hiriari eta migrazio-prozesuei buruz gogoeta egiteko foro bat irekiko dugu, eta hausnartuko dugu ea kulturaren arlotik nola heltzen zaion fenomeno horri, beste leku batzuetako adibideekin; besteak beste, *Harrotu ileak* aztertuko dugu, hau da, Tabakalera etortzen diren gazte migratzaile batzuekin duela urtebetetik lantzen dugun programa.

Zinemari, bi emakume zuzendari izango ditugu: Valeska Grisebach, *Western* saritueren zuzendaria, eta Valérie Massadian, hainbat jaialditan saritu duten zinemagile frantziarra. Hala, *Historias extraordinarias* filmarekin amaituko dugu Universidad del Cine (Buenos Aires) zikloa.

Azkenik, Itziar Okarizen erakusketa amaitzeko, performancearekin eta hitzarekin lotutako zenbait jarduera prestatu ditugu, eta Guy de Cointet obra ikusteko gonbidapen berezi bat egin dugu ekainaren 1 eta 2rako. Ekainaren 22an, dena prest izango dugu, batez ere ikus-tuneezkoak lantzen dituen Rosa Barba italiar artistaren erakusketa inauguratzeko.

Horrela, udari lekua egingo diogu. Lehenik, baina, ez ezazu ahaztu hurrengo orrialdeetan zehatzago aurkezten dizugun programa osoa kontsultatzea.

Durante mayo y junio, también en Tabakalera damos fin al curso, con la presentación de proyectos que hemos desarrollado en centros escolares, cierre de ciclos de programa habitual y el cambio de exposición.

Este año académico ya han pasado más de 120 centros educativos, universidades y asociaciones, y un total de 6.441 niñas/os y jóvenes han participado en diferentes actividades. El trabajo que desarrollamos junto al profesorado es muy importante para la transmisión del valor de la cultura a las niñas y niños. Durante estas fechas presentaremos algunas conclusiones y seguiremos reflexionando en torno a las cuestiones que desde la cultura afectan a la pedagogía y viceversa.

El 11 y 12 de mayo celebraremos la segunda edición del encuentro *Del aula al laboratorio* para seguir pensando en cómo diseñar laboratorios abiertos en el ámbito educativo. El 25 de mayo presentaremos el resultado del proyecto desarrollado en Txirrita Ikastola de Hernani en la convocatoria *Periferias escolares*, que tiene como objetivo trabajar junto a artistas y creadores (Mugatxoan y Maushaus) en retos propuestos por el propio centro. El 19 de junio, por otra parte, presentaremos en el cine el cortometraje producido por el alumnado de 1º de ESO del Instituto Oriarte de Lasarte-Oria, con el realizador Mikel Gurrea, en el proyecto *Zinema (h)abian - Cinema en curs* impulsado por el colectivo A Bao A Qu y desarrollado en colaboración con Elías Querejeta Zine Eskola.

En junio acabaremos todos los programas cíclicos que nos han acompañado a lo largo del curso, pero volverán con mejoras en septiembre y octubre, tanto en Ubik como en Hirikilabs, donde preparamos programas especiales para verano.

Bajo el título de *Geografías y formas de poder*, la sexta edición de *Ciudad y otras políticas* tendrá lugar el primer fin de semana de mayo con excursión incluida. El fin de semana siguiente abriremos las puertas del Espacio de Creadores para presentar a las y los residentes actuales y sus proyectos en un ambiente relajado.

Del 17 al 19 de mayo vamos a abrir un foro para pensar sobre la ciudad y los procesos migratorios y cómo desde el ámbito cultural se aborda este fenómeno con ejemplos de otros lugares, incluido el programa *Harrotu ileak* que llevamos desarrollando desde hace un año con un grupo de jóvenes migrantes usuarios de Tabakalera.

En el cine tendremos la presencia de dos mujeres realizadoras: Valeska Grisebach, la directora de la premiada *Western*, y Valérie Massadian, cineasta francesa galardonada en diferentes festivales.

Con *Historias extraordinarias* daremos fin al ciclo Universidad del Cine (Buenos Aires).

Para dar cierre a la exposición de Itziar Okariz hemos preparado una serie de actividades vinculadas a la performance y la palabra, con una invitación muy especial a la obra Guy de Cointet para los días 1 y 2 de junio. El 22 de junio tendremos todo listo para inaugurar la exposición de la artista italiana Rosa Barba, cuyo trabajo se centra en lo audiovisual.

Y así, daremos paso al verano. Pero antes, no te olvides de consultar todo el programa que te presentamos con mayor detalle en las próximas páginas.

During May and June in Tabakalera we too will be marking the end of the school year, including presentation of the projects which we have been running in schools, closure of cycles from the regular programme and a change of exhibition.

On May 11th and 12th we will be holding the second edition of From the classroom to the laboratory to continue discussing how to design open laboratories in the education sector. On May 25th we will present the outcome of the project run in Txirrita Ikastola in Hernani. Part of the School Peripheries programme, it sought to address challenges laid down by the school itself, working jointly with artists and creators. On June 19th the Tabakalera cinema will screen the short film produced by first year students at Instituto Oriarte in Lasarte-Oria.

June will mark the end of all the cycles which have been up and running throughout the year, but they will be back—and even better—in September and October in both Ubik and Hirikilabs. We are also preparing special summer programmes for these venues.

Under the banner Geographies and Forms of Power, the sixth edition of City and other policies will take place during the first weekend in May (outing included), and the following weekend we will open the doors to the Artist's Space to present the current residents and their projects in a relaxed setting.

From May 17th to 19th we will be running a forum to reflect on the concept of the city and migratory processes. In the cinema we will be joined by two female producers: Valeska Grisebach and Valérie Massadian.

The exhibition by Itziar Okariz will end with a series of activities linked to performance and word, including a special guest exhibition of the work of Guy de Cointet on June 1st and 2nd. On June 22nd everything will be in place for the opening of the exhibition by the Italian audiovisual artist Rosa Barba.

And from there, we'll transition into summer.



ERA- KUS- KETAK



I Never Said Umbrella

Itziar Okariz

Sala de exposiciones
Hasta el 3 de junio

El pasado 24 de marzo pudimos disfrutar de una cita muy especial en la sala de exposiciones de Tabakalera. Un lujo. La artista Itziar Okariz, acompañada de Beatriz Herráez, comisaria de la muestra, ofreció un visita guiada a la exposición *I Never Said Umbrella*.

Suele ser habitual que las y los artistas sean reticentes a comentar su obra. Itziar Okariz también mencionó que no le gusta mucho hablar de sus trabajos en la introducción previa a la visita pero, en cuanto arrancó, ofreció jugosas explicaciones y reflexiones en torno a su proceso de creación. Lo dicho, un lujo para quienes asistieron.

Aun insistiendo en que es mejor que cada cual interprete libremente las piezas, que facilitar indicaciones demasiado dirigidas, Okariz ofreció unas claves fundamentales para poder profundizar en dichas interpretaciones y contextualizar mejor su trabajo.

Erakusketa-aretoa
Ekainaren 3ra arte

Iragan martxoaren 24an hitzordu berezia izan genuen Tabakalerako erakusketa aretoan. Luxu bat. Itziar Okariz artistak, Beatriz Herráez komisarioak lagunduta, *I Never Said Umbrella* erakusketan zehar bisita gidatua eskaini zuen.

Artistek, sarri, ez dute gogoko izaten beren lanaz hitz egitea. Itziar Okarizek ere horixe esan zuen bisitaren aurretik egindako aurkezpenean, baina behin hizketan hasita, azalpen eta gogoeta oparoak eskaini zituen. Esan bezala, bertaratutakoentzat luxua.

Lanen argibide zehatzak ematea baino interesgarriago jotzen du bakoitzak aurrez aurre duenaren interpretazioa egitea. Dena den, norberaren interpretazio hori aberasteko eta bere lanaren testuingurua hobeto ezagutzeko zenbait funtsezko ideia utzi zizkigun:



EXPOSICIONES EXHIBITIONS

Exhibition Hall. Until 3 June

A very special event was held on 24 March in the Tabakalera exhibition hall. Itziar Okariz and Beatriz Herráez offered a guided tour of the *I Never Said Umbrella* exhibition. Okariz provided key fundamentals in order to better contextualise and delve more deeply into her work.

Out of bounds

In an image, I am more interested in what is said by that unseen. It forces you to imagine and interpret what is missing.

Breaking the rules

What is allowed and what isn't. Both in life, and in art. I am interested in seeing what happens when we change established norms slightly.

Recording events on paper

Experimenting with the transcription process. Words take on meaning when placed next to each other, and if we add or subtract words, this meaning is transformed.

An intense programme to close the exhibition.

1 and 2 June.

On Friday afternoon, Itziar Okariz, Beatriz Herráez, and Lola Hinojosa will participate in a round table. Later, Beatriz Dillon will present her piece *Can I Change My Mind?*

On Saturday, a lecture with Carmen Pardo will start the day, followed by a performance by Itziar Okariz. The afternoon will end with two performances by renowned artist Guy de Cointet.

EREMUZ KANPOKOAZ:

Interesgarriagoa zait irudi batean ikusten ez den zati horrek esaten duena. Falta dena irudikatu edo interpretatu egin behar da, eta hori askoz interesgarriagoa da informazioa oso-osorik jasotzea baino.

ARAU-URRAKETAZ:

Zer dagoen onartua eta zer ez. Nola bizitzan, zein artean. Ageriko urraketak izan daitezke kalean zutik pixa egitea edo hiriko eraikin bat eskalatzea, baina baita esaldi batean hitzak lekuz mugitzea ere, esanahi berriak sortzeko. Ezarritako araua apur bat mugituta zer gertatzen den ikustea gustatzen zait.

GERTAKARIAK PAPERERATZEAZ:

Gogoko dut esperimentatzea ekintzak paperera eramateko prozesuarekin. Hitzek elkarren aldamenean hartzen dute zentzua, eta hitzak kendu edo jarri ahala, zentzu hori eraldatuz doa. Nire lanean hitzak eskultura modukoak sortzeko materiala dira, eta material hori lortzeko kutxetako bat dira ametsak.

PROGRAMA BETE-BETEA ERAKUSKETARI AMAIERA EMATEKO

Ekainak 1

Itziar Okariz, Beatriz Herráez, erakusketaren komisarioa, eta Lola Hinojosa, performance aditua, mahai inguru batean elkartuko dira. Ondoren, Beatriz Dillonek *Can I Change My Mind?* piezaren entzunaldia eskainiko du.

Ekainak 2

Carmen Pardoren hitzaldiarekin abiatuko da jardunaldia; ondoren, Itziar Okarizek performance bat eskainiko du erakusketa aretoan. Eta guztiari itxiera borobila emateko, larunbat arratsaldean Guy de Cointet artista ezagunaren bi performance eskainiko dira zinema aretoan: *My Father's Diary* eta *Going to the Market*.

SOBRE EL FUERA DE CAMPO:

En una imagen, me interesa más lo que dice aquello que no se ve. Te obliga a imaginar o interpretar lo que falta, y esto resulta mucho más interesante que contar con la información completa.

SOBRE LA TRANSGRESIÓN DE LAS NORMAS:

Qué está permitido y qué no. Tanto en la vida como en el arte. Mear de pie en la calle o escalar un edificio urbano, pueden resultar unas transgresiones evidentes, pero también lo es, por ejemplo, cambiar de lugar una palabra de una frase, generando significados nuevos. Me interesa ver lo que ocurre cuando modificamos levemente las normas establecidas.

SOBRE TRASLADAR SUCESOS AL PAPEL:

Me gusta experimentar con el proceso de trasladar al papel acciones o sucesos. Las palabras cobran sentido las unas junto a las otras, y si añadimos o eliminamos palabras, ese sentido se va transformando. En mi trabajo las palabras son el material con el que crear piezas de carácter escultórico, y una de las fuentes desde donde extraigo este material son los sueños.

INTENSO PROGRAMA DE ACTIVIDADES COMO CIERRE DE LA EXPOSICIÓN

1 de junio

Itziar Okariz, Beatriz Herráez, comisaria de la exposición, y la experta en performances Lola Hinojosa, participarán en una mesa redonda. Después, Beatriz Dillon presentará en una sesión de escucha su pieza *Can I Change My Mind?*

2 de junio

La jornada comenzará con una conferencia de Carmen Pardo seguida de una performance de la mano de Itziar Okariz. Y, por la tarde, como colofón, se interpretarán dos performances del reconocido artista Guy de Cointet: *My Father's Diary* y *Going to the Market*.

Hurrengo erakusketa...

Próxima exposición...

Rosa Barba

Erakusketa-aretoa
Sala de exposiciones

Inaugurazioa: ekainaren 22an 20:00etan

Inauguración: 22 de junio a las 20:00

Alemanian bizi eta lan egiten duen Rosa Barba (Sizilia, 1972) artistaren lanek hartuko dituzte erakusketa aretoak ekainaren 22tik aurrera.

Udako protagonistetako bat izango den erakusketak, *Drawn by the Pulse* izenburupean, aurreko urteetako ikus-entzunezko lanak eta Tabakalera lehen aldiz aurkeztuko direnak bilduko ditu.

A partir del 22 de junio, las salas de exposiciones acogerán un nuevo proyecto expositivo dedicado a la artista Rosa Barba (Sicilia, 1972).

La exposición, titulada *Drawn by the Pulse*, estará formada por piezas de los últimos años y por proyectos que se estrenarán en Tabakalera.

Exhibition room. Opening: 22 June 8 pm

NEXT EXHIBITION... Rosa Barba

Starting 22 June, the exhibition halls will welcome a new exhibition project dedicated to artist Rosa Barba (Sicily, 1972). The exhibition, entitled *Drawn by the Pulse*, will comprise pieces from recent years and some projects that will be seen for the first time at Tabakalera.



Kutxa Kultur Arteteguneak eskaintzen dituen erakusketak ere ikusgai dituzu Tabakalera: **Cespadosa. Juan Manuel Castro Prieto**ren erakusketa uztailaren 1era arte izango da ikusgai.

Artetegunea. Tabakalera 0 solairua.

kutzakulturartetegunea.eus

En Tabakalera también puedes visitar las exposiciones de Kutxa Kultur Artetegunea: **Cespadosa. Juan Manuel Castro Prieto** se puede visitar hasta el próximo 1 de julio.

Artetegunea, planta 0 de Tabakalera.

Tabakalera is also hosting Kutxa Kultur Artetegunea's exhibitions: **Cespadosa. Juan Manuel Castro Prieto's** exhibition will be open until 1 July.

Artetegunea, Tabakalera ground floor.



ZI- NE- MA

CINE CINEMA

We celebrate with this double series a double discovery. On the one hand, the frontwoman (yes, we talk about her as a rock band) of the French cinema, Valérie Massadian. On the other hand, one of the key names of the new German cinema movement, known as Berlin School: Valeska Grisebach.



VALESKA GRISEBACH



Ziklo bikoitz honekin aurkikuntza bikoitza egingo dugu. Alde batetik, zinema frantsesaren *frontwoman*-a (bai, rock talde bati buruz bezala hitz egiten dugu), Valérie Massadian. Bestetik, *Berlingo Eskola* gisa ezagutzen den zinema berri alemaniarren izen nagusia: Valeska Grisebach.

“Nire pelikulak beti abiatzen dira leku batetik. *Nana* nire ama bizi den lekuan filmatu nuen, primeran ezagutzen nuelako. Zuhaitz guztiak ezagutzen ditut. Behi guztiak. Natura basati bera nahi nuen *Milla* filmatzeko baina ozeanoan, itsasoan. Nire amarekin bidaiatu nuen iparraldeko kostaldera eta hortxe aurkitu nuen pelikularen lekua”.

Valérie Massadian

“Uste dut erabaki hauek beti daudela bizipen pertsonalei lotuta- norbait ezagutzen duzu, hitz egiten hasten zara, eszena bat saia dezakezu. Beti bidaiatzen dut kamera txiki batekin. Oso leku berezia da eta oraingo, ez horren ezaguna. Greziako krisia dela eta, baserriar greziar asko ari dira beraien baserriak Bulgarian jartzen. Serbiako mugarekin alderatuz, askoz ere aberatsagoa, biziagoa eta boteretsuagoa da. Alemanentzat homologo ona zela pentsatu nuen”.

Valeska Grisebach

05/11 - 20:00
Sehnsucht, 2005, 88’
06/16 - 20:00
Western, 2017, 100’
06/17 - 19:00
Mein Stern, 2001, 65’

Celebramos con este doble ciclo un descubrimiento doble. A un lado una de las *frontwoman* (sí, hablamos como si de un grupo de rock se tratara) del cine francés, Valérie Massadian. Al otro, uno de los nombres clave del movimiento de nuevo cine alemán conocido como *Escuela de Berlín*: Valeska Grisebach.

“Mis películas siempre empiezan con un lugar. Filmé *Nana* donde vive mi madre porque es un lugar que conozco perfectamente. Conozco cada uno de los árboles, cada una de las vacas. Quería la misma naturaleza salvaje en *Milla* pero con el océano, el mar. Viajé con mi madre a la costa del norte y encontré este lugar”.

Valeska Grisebach

“Creo que estas decisiones siempre están mezcladas con la experiencia personal -conoces a alguien, empiezas a hablar, puedes incluso probar una escena. Siempre viajo con una pequeña cámara. Es un lugar muy especial y, por ahora, no tan conocido. A causa de la crisis en Grecia, muchos campesinos griegos están intentando poner su granja en Bulgaria, ya que comparándola con la frontera de Serbia, esta zona es mucho más rica, muy viva, con mucho potencial. Pensé que era un buen homólogo para los alemanes”.

Valeska Grisebach



VALÉRIE MASSADIAN


05/26 - 20:00
Milla, 2017, 128’
05/27 - 19:00
GUTUN ZURIAK / CARTAS BLANCAS / CARTES BLANCHES
06/03
Nana, 2011, 68’
Laburmetraiak / Cortometrajes / Short Films:
Ninouche, 2011, 23’
Mamouschka, 2014, 10’
Precious, 2014, 4’

Tabakalerako zineman badira programatzen duten beste hainbat eragile ere: Donostia Zinemaldia, Euskadiko Filmategia, Donostia Kulturaren zine unitatea eta Elías Querejeta Zine Eskola. Programazio osoa hilabeteroko zinema-eskuorrian dago kontsultagarri Tabakaleran eta tabakalera.eu webgunean.

En la sala de cine de Tabakalera también programan: Festival de San Sebastián, Filmoteca Vasca, la unidad de cine de Donostia Cultura y Elías Querejeta Zine Eskola. La programación completa está disponible en el folleto mensual que podrás encontrar en Tabakalera o en tabakalera.eu.

Tabakalera's cinema is programmed along with San Sebastian Festival, Basque Film Archive, the cinema unit of Donostia Cultura and Elías Querejeta Zine Eskola. Complete programme is available at Tabakalera and online in our website tabakalera.eu.

TABAKALERA



05/06 > 19:00

ARO ATOMIKOA / LA ERA ATÓMICA / THE ATOMIC AGE

Ninouche, Valérie Massadian, Frantzia / Francia / France, 2011, 23, JBAES / VOSE / OV with Spanish subtitles.

Le Parc, Damien Manivel, Frantzia / Francia / France, 2016, 71, JBAES / VOSE / OV with Spanish subtitles.




05/12 > 20:00

GUTUN ZURIAK / CARTAS BLANCAS / CARTES BLANCHES

D'A Film Festival Barcelona

Con el viento, Meritxell Colell, Espainia / España / Spain, 2018, 100', JB gazteleraz / VO en español / OV in Spanish
Gonbidatuak / Invitados / Guests: Meritxell Colell & Carlos R. Ríos, D'A Film Festival zuzendaria / director.




05/13 > 11:00

ZINEMARAAA!!

Ma Vie De Courgette (La vida de Calabacín),

Claude Barras, Suitza / Suiza / Switzerland, 2016, 66', JBAEUS / VOSEU / OV with Basque subtitles.



05/13 > 19:00

GUTUN ZURIAK / CARTAS BLANCAS / CARTES BLANCHES

D'A Film Festival Barcelona

The Green Fog, Guy Maddin, Evan Johnson & Galen Johnson, AEB / EUA / USA, 2017, 63', JBAES / VOSE / OV with Spanish subtitles.



06/15 > 20:00

The Champion, Charles Chaplin, AEB / EUA / USA, 1915, 31'. Elkarrizketarik ez / Sin diálogo / No dialogue.

EUSKADIKO FILMATEGIA



05/03 > 19:00

Stalker, Andréi Tarkovski, Sobiet Batasuna / Unión Soviética / Soviet Union, 1979, 161, JBAES / VOSE / OV with Spanish subtitles.

Aurkezpena / Presentación / Presentation: **Carlos Muguiro**.




05/10 > 19:00

Nostalgia (Nostalgia), Andréi Tarkovski, Italia / Italy, 1983, 125', JBAES / VOSE / OV with Spanish subtitles.



05/17 > 19:00


Offret (Sacrificio), Andréi Tarkovski, Suedia / Suecia / Sweden, 1986, 145', JBAES / VOSE / OV with Spanish subtitles.



05/24 > 19:00


Une journée d'Andréi Arsenévitch (Un día en la vida de Andrei Arsenévitch), Chris Marker, Frantzia / Francia / France, 2000, 55', JBAES / VOSE / OV with Spanish subtitles.

NOSFERATU



05/09 > 20:00

1984, Michael Radford, Erresuma Batua / Reino Unido / United Kingdom, 1984, 113', JBAEU / VOSEU / OV with Basque subtitles.



05/30 > 20:00

Ghost in the Shell (Kokaku kidotai), Mamoru Oshii, Japonia / Japón / Japan, 1995, 83', JBAEU / VOSEU / OV with Basque subtitles, DCP.



06/06 > 20:00

Matrix (The Matrix), Lana Wachowski & Lilly Wachowski, AEB / EEUU / USA, 1999, 136', JBAES / VOSE / OV with Spanish subtitles, DCP.



06/20 > 20:00

Hijos de los hombres (Children of Men), Alfonso Cuarón, EB-AEB / RU-EUA / UK-USA, 2006, 113' JBAES / VOSE / OV with Spanish subtitles.



HEZ KUN TZA

MEDIACIÓN
EDUCATION



Kearen artxibogileak

Smoke archivers

Pili, Maite, Lupe, Susi and Clara worked for more than 30 years in the old tobacco factory in San Sebastian, until they witnessed its dramatic closure in 2003. The Tabakalera building employed more than 1,000 workers who produced up to 250 million packets of cigarettes per year. Former workers of the old factory now participate in the Smoke archivers project, which tells their story starting with the immaterial legacy of the factory. It can be visited starting in summer in the Tabakalera's Storage.

Haiiek izan ziren azken andre zigarrogileetako batzuk. Pilik, Maitek, Lupek, Susik eta Clarak 30 urtetik gora lan egin zuten Donostiako tabako-fabrikari, 2003an itxi zuten arte. Orain Kearen artxibogile bihurtu dira, fabrika zaharrak gordetzen zuten ondare materiagabetik abiatuta historia, haien historia, berreskuratu nahi duen egitasmoaren baitan. Tabakaleraren iragana dira, baina baita oraina ere.

06:00etatik 14:00etara eta 14:00etatik 22:00etara. Orduetegi horretan lan egiten zuten Tabakalera zaharreko soldatapeko ia 1.000 langileek (gehienak emakumeak), eta urtean 250 milioi tabako pakete ekoitzi izan zituzten. "Makinak ezin ziren gelditu: batek zigarrotxoak kargatzen zituen, besteak paperak jarri, eta beste batek kartoiak kutxetan sartzen zituen, ateratzen zirenean", gogoratu dute. Baina Celtas Cortos eta Ducados artean, fabrika, andre zigarrogileen lan nekezaren lekuko ez ezik, haien bizitzaren, gertakarien, frustrazioen eta amodio-kontuen lekuko ere izan zen, baita hainbat mailatako zenbait aldarrikapenena ere. "Lehenengoak izan ginen Gipuzkoan astean 40 ordu lortzen", diote, harro.

Archiveras del humo

Ellas fueron algunas de las últimas cigarreras. Pili, Maite, Lupe, Susi y Clara trabajaron durante más de 30 años en la antigua fábrica de tabacos de Donostia, hasta presenciar su dramático cierre en 2003. Ahora se han convertido en *Archiveras del humo*, una iniciativa que pretende recoger la historia, su historia, partiendo del legado inmaterial que guardaba la vieja fábrica. Son el pasado, pero también parte del presente de Tabakalera.

De 6:00 a 14:00 y de 14:00 a 22:00. En ese horario trabajaban las casi 1.000 personas asalariadas de la antigua Tabakalera (la mayoría de ellas mujeres), en una fábrica donde se llegaron a producir 250 millones de cajetillas al año. "Las máquinas no se podían parar: una cargaba cigarrillos, otra ponía los papeles, la otra encajonaba cuando salían los cartones", recuerdan. Pero, entre Celtas Cortos y Ducados, la fábrica era testigo, más allá del arduo trabajo de las cigarreras, de sus vidas, hazañas, frustraciones, amorsos

Kearen Unibertsitatea esaten zioten garai hartan, lagunartean, Tabakalerari. “Estatuko probintzia guztietako jendearekin bizi ginen, pentsamolde ezberdineko jendearekin eta, elkarbizitza horri esker, asko ikasten genuen egunerokoa”, azaldu dute. 18 urte zituztela hasi ziren lanean, eta sartu berri zirenean, fabrikako “sotoa” delakora eramaten zituzten zuzenean. Azaldu dutenez, “Brasilgo eta Dominikar Errepublikako tabakoaren hostoak iristen ziren hara, eta han egiten zen nahasketa, makina erraldoi batzuekin. Leku desatsegina zen oso, eta neska askok, lehen laneguna igaro ondoren, alde egiten zuten handik”.

Hain zuzen ere Sotoan biltzen dira zigarrogileak hilean bitan –eraikin eraberrituan ere garai bateko izenari eutsi zaio– Tabakalerako gaur egungo langileetako batzuekin, ukiezina den horrek protagonismoa hartzen duen artxibo komunitario bat sortzeko. *Kearen artxibogileak* du izena orain lantzen ari diren proiektuak. “Sortzen ari garen artxibo honek, tabako-fabrikaren egin genuen denboraldia erakustez gain, agerian jartzen ditu haren esanahia, sentimenduak, oroitzapenak, horietatik guztietatik jaiotzen diren balioak”, adierazi dute. Kearen kontzeptua garrantzizkoa da haientzat; izan ere, beren lan-jardunarekin lotuta dago argi eta garbi, eta, horrez gain, erreferentzia egiten dio ukitu ezin den horri, artxibo ofizialetan jaso ohi ez den horri eta sasoi bat ulertzeko eta gaurdainoko ibilbidearen berri izateko ezinbestekoa den horri.

Bitxikeriak ere aurkituko ditugu: Ducados kartoieta idatzitako errezetak, langileek elkarren artean trukatzeko zituztenak, eta orduko nominak, besteak beste. “Tabako-kartoiaren barruan mezuak idazten genituen, eta haietako bati, gainera, elkarrekin gelditzeko proposamenarekin erantzun zion tabako-saltzaile batek”, kontatu du Clarak, etxean jaso zuen Gabonetako postala seinalatzen duen bitartean.

Sotoa eraberritzen ari dira orain, baina udan berriro zabalduko dute: “Jendea izugarri gustatuko zaio”, esan dute, amaitzeko. Gainera, langile ohiak, auzoko jendea eta proiektuan parte hartzeko gogoia duen beste edonor gonbidatu dute Tabakalerako hezkuntza-taldearekin egiten dituzten bileretara.

y también de reivindicaciones a distinta escala. “Fuimos las primeras en Gipuzkoa en conseguir las 40 horas semanales”, presumen.


La Universidad del Humo es el nombre coloquial que adoptó en aquella época Tabakalera. “Convivías con gente de todas las provincias del Estado, cada persona con su carácter, su manera de pensar, y esa convivencia nos hacía aprender mucho en el día a día”, explican. Empezaron a trabajar a los 18 años, y en esa primera inmersión laboral eran enviadas directamente a lo que se conocía como la “bodega” de la fábrica, donde, explican, “llegaban las hojas de tabaco procedentes de Brasil o República Dominicana, y ahí se realizaba la mezcla con unas máquinas enormes. Era un lugar desagradable, y muchas de las chicas decidían marcharse tras pasar su primer día de trabajo allí”.

Precisamente en la Bodega -el nombre del lugar se mantiene en el edificio restaurado- es donde las cigarrerías se reúnen dos veces al mes con varias de las actuales trabajadoras de Tabakalera para crear un archivo comunitario en el que lo intangible toma protagonismo. *Archiveras del humo* es el nombre del proyecto en el que están sumergidas en la actualidad. “Estamos creando un archivo que, además

de mostrar objetos de nuestro paso por la fábrica de tabaco, pone en relieve su significado, los sentimientos, recuerdos, valores que emanan de ellos”, aclaran. El concepto del humo es importante para ellas porque, además de la clara vinculación con su actividad laboral, hace referencia a aquello que no es palpable, aquello que los archivos oficiales normalmente no recogen y es de vital importancia para entender una época, para conocer el recorrido hacia el presente.

Encontraremos también curiosidades. Desde recetas escritas en cartones de Ducados que se intercambiaban entre las trabajadoras hasta nóminas de la época. “Escribíamos mensajes en el interior de los cartones de tabaco, y alguno de ellos tuvo como respuesta una proposición de cita por parte de un estanquero”, nos cuenta Clara mientras señala la postal navideña que recibió en casa.

Aunque ahora se encuentre en proceso de renovación, la Bodega se volverá a abrir al público en verano: “A la gente le va a encantar”, concluyen. Además, quieren animar a más extrabajadores, gente del barrio o cualquier otra persona que tenga interés en participar en el proyecto a acercarse a alguna de las reuniones que mantienen con el equipo de mediación de Tabakalera.





UBIK

SORKUNTZA
LIBURUTEGIA

BIBLIOTECA
DE CREACIÓN

CREATION
LIBRARY

Software librea, Ubik-en DNAn

Free software, in Ubik's DNA

Ubik, the Tabakalera creation library, has been clearly committed to free software since its opening more than two years ago. This is Ubik's calling card, which, in addition to making several programmes of free software available to the user, is also used for the library's internal management. Various workshops have been organised this spring to make the possibilities offered by these tools known, and to promote their use.

Ubiketik, Tabakalerako sorkuntza liburutegiak, software librearen aldeko apustu sendoa egin du orain dela bi urte pasa ireki zenetik. Udaberri honetan zenbait lantegi antolatu ditu tresna horien aukerak ezagutarazteko eta haien erabilera bultzatzeko.

Ubiken bereizgarrietako bat, hain zuzen, erabiltzaileei hainbat alderditan ematen dien askatasuna da: espazioa erabiltzeko dituzten aukeretatik hasi eta liburutegiak euren sormena sustatzeko eskuragarri jartzen dituen baliabideetaraino. Horren barruan, software libreak daude, erabiltzaileek modu librean erabili, aldatu eta banatzeko sortutako programak.

Baina, publikoarentzako eskaintzatik harago, Ubiketik liburutegiaren beraren barne-funtzionamenduan ere inplementatu du software mota hau.

Ubik kudeatzeko, Koha softwarea erabiltzen da, Zeelanda Berriaren sortutako eta gaur egun mundu osora zabalduko programa bat. Tabakalerak, gainera, ekarpen batzuk egin dizkio tresna horri; besteak beste, software librearen euskarazko bertsioa ateratu du.


El software libre, parte del ADN de Ubik


Ubik, la biblioteca de creación de Tabakalera, ha hecho una clara apuesta por el software libre desde su apertura, hace más de dos años. Esta primavera organiza varios talleres para dar a conocer las posibilidades que ofrecen estas herramientas e impulsar su utilización.

Uno de los signos identitarios de Ubik es la libertad que ofrece a las personas usuarias en distintos aspectos: desde la forma en la que pueden utilizar el espacio hasta los medios que pone a su alcance para impulsar la capacidad creativa de quien los aprovecha. En este marco se sitúan los softwares libres, programas creados para la libre utilización, modificación y distribución de las personas que los utilizan.

Pero, más allá de la propuesta que se realiza a la ciudadanía, Ubik ha implementado este tipo de software en el funcionamiento interno de la propia biblioteca.

La gestión de Ubik se realiza mediante el software libre Koha, un programa creado en Nueva Zelanda que hoy en día se ha expandido a todo el mundo. Tabakalera ha realizado varias aportaciones o modificaciones a esta herramienta, entre ellas, su versión en euskera.





Koharen aldeko apustu horretan, Ubikek KohaFERENCE-ren sorrera sustatu du. KohaFERENCE, zehazki, erakunde ezberdinetako liburutegien arteko topagunea da, eta tresna erabiltzen ikasteko eta tresnaren inguruan lankidetzan jarduteko aukera ematen du; horrez gain, kudeatzaileari buruz gehiago jakin nahi dutenak erakartzeko modu bat da. Iaz bigarren topagunea antolatu zen, eta estatu osoko askotariko liburutegi-adituak etorri ziren.

Barne mailan egiten duen erabileraz gain, liburutegiak beste hainbat software libre jartzen ditu erabiltzaileen eskura. Horrela, Ubiken dauden hamabi edizio-postuetatik zazpiren sistema eragilea Ubuntu da, hots, GNU/Linux sistema eragilearen software libre bat. Herritarrak, eskura ditu, halaber, testuak, irudiak, soinua edo ikus-entzunezkoak doako lizentziekin edota lizentzia libreekin editatzeko zenbait programa. Era berean, 3D-an diseinatzeko, bideo-jokoak sortzeko edo filmak ikusteko sistemak, besteak beste, software libreetan oinarritzen dira.

FORMAKUNTZA

Sorkuntza liburutegiak software libreen inguruko ezagutza eta erabilera bultzatu nahi ditu eta horretarako zortzi lantegi antolatu dira maiatza eta ekainean zehar. Jardunaldi hauetan erreminta bakoitzaren alderdi praktikoak jorratuko dira. Ubiken egiteko moduari jarraituz, lantegi hauen gako programen aukerekin esperimintatzeko bide emango duten proiektu, lan edo prototipoak sortzea izango da.

Ubikeko bitartekariak emango dituzte lantegiak, euskaraz, esparru horrekin eta hizkuntza horrekin lotutako formakuntzaren inguruan dagoen eskariari erantzuteko. Behin lantegiak amaitutakoan, software libreaz gehiago ikasi nahi dutenek Ubikeko tresnak erabili eta Ubikeko taldearen laguntza jaso ahal izango dituzte sorkuntza-liburutegiaren ohiko ordutegian.


En línea con la apuesta por Koha, Ubik ha sido impulsora de la creación de KohaFERENCE, un encuentro entre bibliotecas de distintas organizaciones interesadas en este gestor bibliotecario que constituye una oportunidad para el aprendizaje y la colaboración en torno a la herramienta, así como un acercamiento para aquellas personas que quieren saber más sobre el gestor. El pasado año tuvo lugar la segunda edición del encuentro y asistieron expertas/os de bibliotecas muy diversas de todo el estado.

Además de su uso interno, la biblioteca también propone la utilización del software libre a nivel de usuario. Como ejemplo, el sistema operativo de siete de los doce puestos de edición que están a disposición de la ciudadanía es Ubuntu, una distribución del sistema operativo GNU/Linux. Las personas usuarias de Ubik tienen a su disposición, además, programas libres y también gratuitos para editar texto, fotografía, sonido y audiovisual en los puestos de edición de la biblioteca. Asimismo, las herramientas para diseñar en 3D, crear videojuegos o el sistema para ver películas también se basan en el software libre.

FORMACIÓN

La biblioteca de creación quiere fomentar el conocimiento y uso del software libre para lo que ha organizado ocho talleres durante los meses de mayo y junio. Cada sesión se dedicará al aprendizaje de los aspectos más prácticos de estas herramientas. Siguiendo a la manera de hacer de Ubik, la clave de estas sesiones estará en crear un proyecto, trabajo o prototipo que contribuya a experimentar con las opciones que ofrecen los programas.

El equipo de mediación de Ubik será el encargado de impartir los talleres, que se ofrecerán en euskera como respuesta a la demanda de formación en este ámbito y en este idioma. Una vez que finalicen, las personas que deseen continuar profundizando en el conocimiento sobre estos softwares tendrán a su disposición las herramientas y la ayuda del equipo de Ubik en el horario de apertura de la biblioteca de creación.



SOFTWARE LIBRE LANTEGIAK TALLERES DE SOFTWARE LIBRE

MAIATZA / MAYO

- 03 > GIMP
- 10 > LMMS
- 17 > STOPMOTION STUDIO
- 24 > GOOGLE KEEP

EKAINA / JUNIO

- 07 > KRITA
- 14 > KICAD
- 21 > ASEPRITE
- 28 > OPENSOT

Adina / Edad: >16
Hizkuntza / Idioma: EU
tabakalera.eu



PRO- GRAMA PUBLI- KOAK

PROGRAMAS PÚBLICOS
PUBLIC PROGRAMMES



Hiria eta
bestelako
politikak

City and Other Policies

The programme seeks to unveil the power and violence relationship which become established between physical structures and bodily experiences, based on the hypothesis that architecture causes violence. Directed by Ula Iruretagoiena and Ibon Salaberria, and which includes guest architect Blanca Pujals for this edition, will offer, during the first weekend of May, a series of activities to open up and share these lines of research with other local and international voices and experiences.



2.mahaia / Mesa 2:
Turismo nuklearra / Turismo nuclear.
Las Vegas, 1950.

“Hiria eta bestelako politikak” proiektuaren seigarren edizioan ere, 2017an hasitako ikerketalanari helduko zaio, lurraldeko egituren eta gorputz-bizipenen artean sortzen diren botere- eta indarkeria-harremanak agerian jartzeko asmoz, arkitekturak indarkeria sorrarazten duelako hipotesia aintzat hartuta.

Ula Iruretagoienak eta Ibon Salaberriak zuzentzen dute programa, eta oraingo edizio honetan Blanca Pujals arkitekto gonbidatuak ere esku hartuko du. Maiatzeko lehen asteburuan zenbait jarduera egingo dira tokiko eta nazioarteko beste ahots eta esperientzia batzuekin ikerlerroak zabaltzeko eta partekatzeko. Horretarako, egitura jakin batzuk aztertuko dira, non arkitekturak oinarritzko zeregina baitu boterearen geografietan eta indarkeriaren espzializazioan.

Ciudad y otras políticas

La sexta edición de “Ciudad y otras políticas” continuará desarrollando el trabajo de investigación iniciado en 2017, que trata de desvelar las relaciones de poder y de violencia que se establecen entre las estructuras del territorio y las vivencias corporales, bajo la hipótesis de que la arquitectura es productora de violencia.

El programa, dirigido por Ula Iruretagoiena e Ibon Salaberria, y que para esta edición cuenta con la arquitecta invitada Blanca Pujals, ofrecerá el primer fin de semana de mayo una serie de actividades para abrir y compartir las líneas de investigación con otras voces y experiencias locales e internacionales. Para ello, se analizarán los entramados en los que la arquitectura juega un papel primordial como testigo, agente o aparato en las geografías del poder y la espacialización de la violencia.



Michael Nash. Varsovia, 1946

Indarkeriazko praktika gisa definitzen diren eszena espazial horien eraginez etorri ohi dira giza jokabideen inposizio erreduktiboak; subjektibotasun berrien eraikuntza; muga ikusezinen sorrera; diseinuaren bidezko espazioaren estandarizazioa; gure gorputz, hiri eta lurraldeetan inpaktua duten pribatizazioa, babeste eta bereizte moduak. Ohiko bizimodua modu ukiezin eta ikusezinean zeharkatzen duten indarkeriak, erasoak eta inposizioak, arkitekturaren eta lurraldearen espazioan, espazio horretan zehar eta espazio horren bidez gertatzen direnak. “Denboran irauten duen mikroindarkeria isila, higatzailea, jarraitua, hainbat intentsitate dituena”, dio Pujalsek.

Edizio honetara gonbidatutako arkitektoak azpimarratu duenez, ohikoa da muga ikusezinak eraikitzea bazterkeria sozial, ekonomiko edota ideologikoaren ondorioz, esaterako, edota ezabatze-prozesuak direla eta, hala nola turismogintza eta gentrifikazioa. Ohikoak dira, halaber, etxegabeei babes hartu eta lo egiteko modurik ematen ez dieten arkitekturak; norbere pribatutasuna urratzen duten edo hiriko eremu edo eraikin jakin batzuetarako sarbidea pribatizatzen duten kontrol-, segurtasun- eta babes-sistemak.

Hala, arkitekturak hirian ezartzen diren arketipoekin lan egiten du, “arauz kanpoko” gorputz eta jokabideak baztertuz.

Las escenas espaciales definidas como prácticas de violencia se refieren a imposiciones reductivas de los comportamientos humanos; a la construcción de nuevas subjetividades; al establecimiento de fronteras invisibles; a la estandarización del espacio mediante el diseño; a formas de privatización, protección y segregación que impactan en nuestros cuerpos, ciudades y territorios. Violencias, agresiones e imposiciones que atraviesan la vida ordinaria de forma intangible e invisible y que suceden en, por y mediante el espacio arquitectónico y territorial. “Una microviolencia sostenida en el tiempo, silenciosa, erosiva, continua y con diferentes intensidades”, señala Pujals.

La arquitecta invitada en esta edición destaca que es común la construcción de fronteras invisibles por razones de segregación social, económica o ideológica, por ejemplo, o debido a procesos de borrado como pueden ser la acción del turismo o la gentrificación. También son habituales arquitecturas hostiles para no permitir a las personas sin techo resguardarse y dormir; sistemas de control, seguridad y protección de ciertas zonas que violan la privacidad individual o privatizan el acceso a ciertas áreas o edificios de la ciudad.

Así, la arquitectura trabaja con arquetipos que se implantan en la ciudad, excluyendo los cuerpos y comportamientos “no normalizados”.

HIRIA ETA BESTELAKO POLITIKAK. CIUDAD Y OTRAS POLÍTICAS

05 MAIATZA / MAYO

(Larunbata / Sábado)

Mahai ingurua / Mesa redonda:
BOTEREAREN FORMAK ETA GEOGRAFIAK

GEOGRAFÍAS Y FORMAS DE PODER

Hizlariak / Ponentes:

11:00 - 14:00

Iñaki Gracenea, artista / artista.
Arantza Santesteban, ikertzailea / investigadora.
Antonio Giraldez, arkitektoa / arquitecto.

16:00 - 19:00

Marina Otero, arkitektoa / arquitecto.
Joseba Zulaika, antropologoa / antropólogo.

📍 Z aretoa / Sala Z /

06 MAIATZA / MAYO

(Igandea / Domingo)

TXANGOIA LEMOIZERA SALIDA A LEMOIZ

🌐 tabakalera.eu

10:00

Autobusaren irteera / Salida del autobús:

📍 Tabakalera

Donostia eta Lemoiz arteko lurraldeetatik igaroko gara, hitzaldietan esandakoak testuinguruan jartzeko helburuz.

Itinerario entre los territorios de San Sebastián y Lemoiz, con el objetivo de contextualizar las líneas discursivas.

